

1.BALOREZKO PROPOSAMENA:

Geure furgoneta multifuntzionalarekin, festa giroan gazteok eduki ditzakegun beharrei modu praktiko eta errazean erantzungo diegu. Hau da, berokiak edo nahi delakoa takilletan gordetzea eta baita janaria eskaintzea ere. Zerbitzu honekin, erabiltzeko erraztasuna eta eskuragarritasuna bermatuko ditugu. Gainera, berritasuna eskainiko dugu, berokiak edota bestelako objektuak gordetzeko beharra orain arte asetu gabea izan delako. Horretarako, kuota desberdinez baliatuko gara. Berokia edo dena delakoa gordeko dugun ordu kantitatearen arabera, prezio desberdinak izango ditugu eta adierazteko kolore desberdinetako pultserak emango dizkiegu. Objektu edo arropa desberdinak jasotzeko ordutegi bat izango dugu, 20:00etan irekiko dena goizeko 1:00k arte.

- 20:00: gorria
- 21:00: horia
- 22:00: berdea
- 23:00: urdina
- 00:00: morea
- 01:00: arrox

Itzulera orduaren arabera, orduak kontatu eta momentuan egingo dute ordainketa.